

Haritzalde taldeko kideak.mp3

—Gaur Haritzalde talde ekologistaren bileran egon naiz, eta ingurumena zaintzeko oso proposamen interesgarriak egin dizkigute.

—A bai? Nik etxean dena birziklatzen dut.

—Tira, birziklatzea ondo dago, baina batzuetan ez da beharrezkoa. Adibidez, botila gehienak, behin hustuta daudenean, berriro erabil daitezke, birziklutzerara bota beharrean. Zenbait dendatan, gainera, hustutako botilak eraman eta beste batzuk erosteagatik beherapena egin ohi dutela esan digute.

—Ui, ba hori ez nekien. Nik, hustu orduko, ontzi berdean uzten ditut, eta kito!

—Gainera, ontzi gutxiago erabiltzeko ahalegina ere egin dezakegu, eta, frutak, barazkiak eta garbiketarako produktuak ontziratuta erosi beharrean, pisura eros ditzakegu. Gero eta denda gehiagotan saltzen dituzte pisura garbigailurako xaboa, txanpua, leungarria...eta beste hainbat gauza.

—Bai, hori banekien, baina ez dut inoiz egin.

—Eman dituzten ideia batzuk ezagutzen nituen, baina ondo etorri zait gogoraraztea, adibidez, bainatu beharrean dutxatu egin behar dugula, kontsumo baxuko bonbilak erabili behar ditugula...

—Bai, horiek nik dagoeneko egiten ditut.

—Beste batzuk praktikan jarri beharko nituzke. Toki guztietara autoz joan beharrean bizikleta edo garraio publikoa erabiltzen badugu, kutsadura jaitsiko litzateke. Eta, gainera, kirola egingo genuke.

—Bai, planeta zaintzeaz gain, ipurdi handi hau jaitsiko nuke, baina hain naiz alferra!

—Tira, orain ez gara hasiko bidaia guztiak bizikletaz egiten, baina zergatik ez diogu erronka bat jartzen geure buruari?

—Erronka? Zer erronka?

—Ba, adibidez, hasiko al gara astean hirutan institutura bizikletaz joaten?

—Ados.

—Eguraldi ona edo txarra egin arren, e?

—Ados. Bihartik aurrera, bizikletaz.